

HARRIaren saila • 2. aretoa



1



1 Zirianoko harburuak

Animalien buruak dira?, pertsonak gogorarazten dizkigute?, gizakien zer ezaugarri dituzte? **Deskribatu ikusten duzuna.** Animaliak ala gizakiak diren jakitea zaila da. Seguru asko hibridoak izango dira; hau da, bien nahasketak.

2 Beeltzebuben mentsula

Deskribatuko zenuke eskultura hau?, zenbat pertsonaia ageri dira?, gizakiak ala animaliak dira?, zer animalia ageri dira?, ezaguna da?

Ez da animalia jakin bat bereizten, felido bat izan daiteke. Munstro itxura du eta beldurgarria da.

Zer egiten ari da?, zure ustez, zergatik ari da egiten?

Animalia gizakia jaten ari da bekataria delako, gaizki portatu delako. Deabruaren irudia da eta Beeltzebub deitzen da (goian jartzen du). Zerez eginda dago?, irudika dezakezu pieza hori lehen non zegoen?

Harriz eginda dago. Museora etorri aurretik eliza bateko horman zegoen eta zerbaiti eusteko balio zuen.


Begiratu orain aretoko gainerako irudiei. Horiek ere harrizkoak dira eta elizetatik etortirako zatiak dira. Duela 800 urte horrelako irudiak egiten zituzten eliztarrei Ongia eta Gaizkia erakusteko.




2



ENBORRaren saila • 3. aretoa



3



3 San Mikel, Gásetakoa

Zein animalia dela dirudi? **Deskribatu zatika.**

Animalia fantastikoa da eta beste animalien zatiekin osatuta dago: muskerraren buztana (luzea eta ezkataduna), arranoaren gorputza (koloretako lumadun hegoak eta atzazal zorrotzekiko atzamarrak) eta otsoaren burua (aho handia, hortz zorrotzak eta mihi luzea). Asmatutako animalia hau deabrua da.

Nor izan daiteke gizakia?, nola jantzita dago?

Lantza eta ezkutua ditu, militarrek bezala, baina santuen janzkera du: tunika, mantua eta sandaliak. Santu bat da: San Mikel.

Zer ari da gertatzen?, borrokan dabilzala dirudi?

San Mikel deabruaren aurka borrokatzen ari da. Baina ez dirudi hala ari denik, aurpegia lasai baitu eta gorputza ia mugitu gabe; indarkeriazko keinu bakarra dago: oinarekin zapaltzen du.

Behatu materialari eta koloreei: zurezko enbor bat da eta tailatuta eta kolore biziarekin polikromatuta (margotuta) dago. Tunikak erronboak ditu, duela 600 urteko modaren arabera.


Beste santu eta santa batzuk ere izaki beldurgarriekin batera ageri dira, baina fedeak garaitu ditu izaki horiek. Aurkitu 3. eta 4. aretoan. Honakoak dira: **San Bartolome, San Mikel arimak pisatzen** eta **Santa Marina dragoia garaitzen.**

Zure ustez, zertarako egin ziren eskultura hauek?

Elizetako aldareetan zeuden, jendeak horien aurrean otoitz egiteko. Santuen bizitzak eta ekintzak eredugarriak ziren eliztarrentzat, jarraitu beharreko ereduak ziren.



ENBORRaren saila • 4. aretoa



4 Torturako erretaulako taulak: Jaiotza

Zazpi margolan hauek multzo bat osatzen dute eta multzo horri erretaula esaten zaio. Torturako elizaren horma nagusian zeuden, mundu guztiak ongi ikusteko. Erretaulek istorioak kontatzen dituzte, komikiek bezala.

Irudika dezakezu eszena hauetan gertatzen dena? behatu pertsonaiei eta deskribatu jantziak, jarrerak, keinuak... Irudikatu zer egiten ari diren, nori zuzentzen diren, zer esaten duten...

Jesusen jaiotzarekin lotutako eszenak dira. Ezkerreko tauletan ageri direnak Jesus jaio aurretik gertatu ziren: Deikundea (San Gabrieleke Andre Mariari haurra izango zuela esan zionekoa) eta Ikustaldia (Andre Maria bere lehengusu Isabel ikustera joan zenekoa). Ondoren Jaiotza eta Erregeen Gurtza daude. Azpiko tauletan santuak ageri dira. Santu horien izenak jakiteko, goiko zatian antzinako letrez idatzita dauden hizkiak irakurtzen saia zaitezke.

Zer animalia daude Jaiotzan?, zer egiten ari dira?, nori gerturatuta daude?, zer postura dute?

Astoa eta idia dira eta estalpean zeuden Jesus jaio zenean; orduan, belauniko jarri eta gurtu egin zuten. Gainera, beroa eman zioten arnasarekin.

Bada gizakia ez den beste izakirik?, behatu hondoan otoitzean daudenei, zer dituzte bizkarrean?

Gizakiak dira, baina koloretako hegoak dituzte. Badakizu nola deitzen diren: aingeruak. Jainkoaren mezulariak dira, horregatik egiten dute hegana. San Gabriel ere aingerua da.

Behatu koloreei, asko ala gutxi daude?, biziak ala itzaliak dira?, zein dira nagusi?

Margolariak tenplea erabili zuen (koloretako pigmentuak eta arrautza nahastuta) zurezko tauletan gainean.

TAULaren saila • 7. aretoa



5



5 Labrazako erretaulako taulak: San Mikel Gargano mendian eta San Mikel deabruaren aurka borrokan

Pintatutako taula hauek ere erretaula izandakoak dira.

Behatu eskuineko margolanari: nor da erdian dagoena?, nola jantzita dago?, zer du buruan?, zer daruma eskuetan?, zer egiten ari da?

San Mikel da, santu bat (bere buru gainerako argi koroak adierazten du) eta gerlaria ere bada, ezpata, lantza eta armadura baitaramatza. Munstro baten aurka borrokatzen ari da, deabruaren aurka.

Nolakoa da deabrua?, deskriba dezakezu?

Hego izugarriak ditu, saguzarrenak bezalakoak, hegoen puntan hezur zorrotzak eta hezurren artean mintza. Hegazti harrapariek bezalako atzamarrak ditu. Buztan ezkatatsua du. Aurpegia gizakiarena bezalako da, baina itsusia, zimurrez betea eta ile askokoa. Mihia kanpoan du. Ilea tente dauka eta belarri puntadunak. Gorputza ilez eta hegoz estalita dauka.

Deabrua ez da munstro bakarra, badira zerutik erortzen diren beste batzuk ere. **Nolakoak dira?, berdinak dira?** Hauek ere deabruak dira, baina apur bat desberdinagoak: batzuek ezkatak dituzte, besteek mokoa, besteek hegaztien hegoak eta muskerren atzamarrak. Denak fantastikoak dira, zenbait animalia nahasketak.


Orain behatu konposizioari (koadroan figurak eta objektuak ordenatzeko moduari). Bi zati bereizten dira: goikoa eta behekoa. Zer dago zati bakoitzean?

Goiko zatia zerua da: laino batzuen gainean Jainkoa dago, tronuan eserita eta aingeruz inguratuta. Behekoan infernua dago, **zer dago harkaitzen azpian?** Sua irteten du.

Bibliaren arabera (Apokalipsia), San Mikel eta beste aingeru batzuek zerutik bota zituzten deabrua eta bere lagunak.

Gainerako margolanetan ere San Mikelen mirari bat ageri da, Gargano mendian egindakoa. **Aurkitu: buruan gezi bat duen gizona, santuena bezalako argi koroa duen animalia, erretaula bat koba baten barruan, gotzain bat eta San Mikel.**

MIHISEaren saila • 9. aretoa



6



6

6 San Andresen martirioa

Zein animalia ikusten dugu margolan honetan?, egiazkoa dirudi?, zer posturatan dago?, mugitzen ari da?

Oso zaldi errealista da. Behatu zein nolako muskuluak dituen, ile distiratsua, zurda kizkurra. Hanka bat altxatuta dauka, burua biratuta eta urrats bat ematen ari da.

Kasu honetan artistak zaldia den bezalako egin du, inolako zentzu sinbolikorik gabe. Koadro askotan zaldien gainean pertsonaia boteretsuak joaten dira. Hau Egea da, erromatarren garaiko prokotsul bat. Honek hartu zuen preso eta torturatu zuen San Andres, ideia kristauak zituelako.

Behatu orain koadroko gainerako pertsonaiei. Geldirik daude ala mugitzen ari dira?, bakoitzak emango duen hurrengo urratsa irudika dezakezu?

Koadroa argazki baten antzekoa da, pertsonaiek izoztuta ageri baitira, baina egin behar dituzten mugimenduak irudika ditzakegu: mailuarekin nola jotzen duen, nola lotzen dizkion santuari eskuak, eskaillerari nola eusten dion, aingeruak nola egiten duten hegana...

Ikus ditzakezu pintzeladak?, artistak pintzelaren arrastorik utzi zuen?

Pintzelada zalua da eta modu irregularrean banatuta dago, efektu desberdinak lortzeko. Artistak mihi se gaineko olio pintura aukeratu zuen (koloretako pigmentuak olioarekin nahastuta).



Deikundea

Behatu margolan honetako katuari, errealista da?, irudika dezakezu ukituz gero nolakoa izango litzatekeen?, zer egiten dute katuek?

Egiako katua dirudi. Goxoa eta biguna izango da. Katuak aukian bil-bil egin eta erdi lo egoten dira, oso etxekoak dira.

Koadroko beste zein elementuk dirudi egiazkoa?, irudika dezakezu loreen usaina edo oihailek ukimena?, zein elementu iruditzen zaizkizu fantastikoak?

Loreei eta gortinei esker egiazko toki batean gaudela dirudi, baina lainoak, aingeruak eta Jainkoaren irudia zerukoak dira.

Zaldiak eta katuek ez dute zentzu sinbolikorik. Koadroetan animaliak agertzen direnean dotoretzeko jartzen dira batzuetan, baina besterik gabe ere jar daitezke, dituzten ezaugarri naturalekin.



7



7

7 San Joan txiki

Zein animalia dago San Joan txikirekin?, errealista da?, nolakoak dira arkumeak?, inoiz ukitu duzu arkumerik?

Arkumea modu errealtan adierazita dago, zehaztasun osoz. Bere ezaugarriak ageri dira: ile goxoa dute, otzanak dira, hauskorra, atseginak, onak...

Arkume honek Jesus adierazten du, sinbolo bat da. San Joan txiki arkumea erakusten digu gure arreta deitzeko, arkumeri behatzeko.

Santa Eulaliaren erretaula. Marquínez



8 Marquínezeko erretaula

Aurkitu erretaula honetako animaliak, zenbat ikusten dituzu?

Aharia, mandoa, idia, dragoia, zezena, arranoa eta lehoia daude. Behatu 1. eszenari: zein dira pertsonaia horiek?, nola jantzita daude?, zer egiten ari dira?, margolana ala eskultura da?, zer material dirudi? Artzainak dira. Aingeru batek Jesus jaio zela esan zien eta gurtzera joan ziren. Jaioberriari opariak eraman zizkioten: aharia eta janariz betetako otarra bat. Eszena hau erliebe bat da, bolumena duen eskultura mota bat da, baina ez da guztiz irteten. Zurezkoa da eta polikromatuta dago.

Behatu orain 4. eszenako arranoari: zer egiten ari da?, zer darama mokoan?, norekin dago?, zertan ari da gizakia?, non daude? Deskribatu gela.

Arranoak tintontziaren tapa darama eta idazten ari den santuari laguntzen ari dela dirudi. Gela idazteko areto bat da eta liburutegia, idazmahaia eta besaulkia ditu.

Aurkitu honelako hiru tintontzi, nortzuk daramatzate?, norekin daude? Zezen bat, aingeru bat eta lehoi bat daude tintontziekin eta santuei laguntzen ari dira. Santu bat lumaz idazten ari da eta beste biek liburua daramate. Ebanjelariak dira eta ebanjelioak idazten ari dira, Bibliako lau liburu, alegia. Santu bakoitzak bere sinboloa du: San Lukasek idia (3), San Joanek arranoa (4), San Mateok aingerua (5) eta San Markok lehoia (6).

Azkenik, behatu Santa Marinari (2): zer animalia du oinetan?, egiazkoa ala fantastikoa da?, otzana ala basatia dirudi?

Santa Marinaren kondairaren arabera, dragoi itxurako deabruak eraso zuen, baina berak garaitu egin zuen. Horregatik, dragoia bere oinetan menderatuta ageri da. Animalia fantastikoa da; lehoia dirudi, baina ez du ilerik eta bizkarrean gandar moduko bat du.

Napoliko jaiotza



9 Napoliko jaiotza

Eguberrietan jartzen duzu jaiotzarik etxean?, zer irudi dituzu jaiotzean?, konparatu hauekin.

Behatu aurpegiei, jantzi dotoreei, postura esanguratsuei, xehetasun txikiei...

Jaiotzek zenbait gertakizun erakusteko balio zuten: artzainen Deikundea, Jaiotza edo Erregeen Gurtza, esate baterako. Napolin (Italian) erregeen eta nobleen artean luxu handiko jaiotzak egiteko moda egon zen. Hau da horietako bat eta 250 urte ditu.

Aurkitu animaliak eta behatu zer nolako posturak eta adierazpenak dituzten.

Ardi batzuk lo daude, ahuntz bat jaten ari da, aharia, astoa, oilo bat zesto batean, tximu bat jaten eta beste bat ahoa irekita.

Zure ustez, zer materialekin daude eginda irudi hauek?

Iztupaz estalitako alanbrez eginda daude (mugitu ahal izateko), baina buruak, eskuak eta oinak zurezkoak edo egositako buztinezkoak dira, errealismo handiagoa izateko. Animaliak ere egositako buztinezkoak eta polikromatuak dira.

animaliak sinboloak eta munstroak museoan

gida bat da eta museoko aretoetan haurrekin ibili eta bertako margolanak eta eskulturak elkarrekin ikusteko balio du.



Oraingo honetan animaliek eramango zaituzte obretara.

Ikustaldia ahalik eta gehien aprobetxatzeko, **garrantzitsua da helduek haurrak sustatzea**:

- obrak adi azter ditzaten.
- ikusten ari direnaren zehaztasun, kolore, forma, keinu... bakoitza hauteman dezaten.
- obretan gertatzen dena eta horren balizko esanahia edo azalpena irudika dezaten.
- euren iritzia eman eta besteekin interpretazioa eztabaida dezaten.

Gogorazi haurrei:

- artelanak erraz apurtzen direnez, ezin direla ukitu.
- 1.000, 700 edo 500 urte dituztenez, zaindu egin behar ditugula etorkizunean beste batzuek ere horien bidez ikasi eta goza dezaten.



1. **Harburuak.** Harria. XIII. mendea. Ziriano
2. **Beeltzebuben mentsula.** Harria. XIII. mendea. Ilardua
3. **San Migel.** Zur tailatua eta polikromatua. XIV. Mendea. Gáceta
4. **Jaiotza.** Taula gaineko tenplea. XV. mendea. Tortura
5. **San Mikelen miraria Gargano mendian eta San Mikel deabruarekin borrokan.** Taula gaineko olio pintura. XVI. mendea. Labraza
6. **San Andresen martirioa eta Deikundea.** Mihise gaineko olio pintura. XVIII. mendea. Argómaniz
7. **San Joan txiki.** Zur tailatua eta polikromatua. XVII. mendea. Gasteiz
8. **Santa Eulaliaren erretaula.** Zur tailatua eta polikromatua. XVI. mendea. Marquínez
9. **Jaiotza.** Buztin egosia eta polikromatua, zura, iztupa, alanbrea eta ehunak. XVIII. mendea. Napoli (Italia)



animaliak sinboloak eta munstroak museoan



Orduetgia:

Asteartetik ostiralera: 10:00-14:00 eta 16:00-18:30

Larunbatetan: 10:00-14:00

Igande eta jaiegunetan: 11:00-14:00

Astelehenetan itxita

Bisita gidatuak

Ibilbide bereziak eta bisita-tailerrak eskolako haurrentzat eta helduentzat

Adinsuentzako bisita gidatuak

Partikularrentzako bisita komentatuak

Aurrez ituntzeko. Tfnoa: 945 150 631

Sarrera eta bisitak dohainik



Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa
Museo Diocesano de Arte Sacro

Sortzez Garbia Katedral Berria
Cadena y Eleta, z/g 01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 150 631 museoartesacro@euskalnet.net



Arabako Foru Aldundia



Diputación Foral de Álava